

Carlos Peña, Mexikora

Chapala lakua zeharkatzera ▶ 3



Bruselaraino eramán dute AHTren aurkako protesta

UDALAK ▶ Tolosaldeko ordezkariak baziren tartean; Aduna eta Gazteluko udalek sostengua eman dute ▶ 5



Tolosaldeko ordezkariak Koldo Gorostiaga Europako legebiltzarkidearekin. HITZA



IRATXE ETXEBESTE

XABI FERNANDEZ ▶ MUNDUKO BELA TXAPELDUNA

«Olinpiar Jokoetarako maila hobetu behar dugu»

Bigarren Munduko Txapelketa irabazi ondoren, domina du helburu ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Bastoiak, mendian ibiltzeko lagungarri

Teknika hobereña erabili behar da ▶ 2

BALIARRAIN ▶

Txekor-jatean 130 lagun elkartuko dira Atari-soro pilotalekuan

'Kutsidazu bidea, Ixabel' lanerako 400 sarrera saldu dira jada ▶ 7



MAIDER JAUREGI

ASTEASU ▶

Santa Kruz jaiak gaur hasiko dira Elizmendi

Simonen jaitsiera izango da ▶ 4

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Gero eta gehiago dira mendian bastoiak erabiltzen dituztenak. Izugarria izan da azken urteetan bastoiaren gorakada; izan ere, edonork erabiltzen ditu gaur egun. Baina, ateratzen al diete horiek erabateko etekina?

Bastoiak gauza askotariko balio dute: animalien aurrean ziurtasuna emateko, sasiz betetako bidezidorra argitzeko edo sendo itxurarik ez duen zorua aztertzeke, urak, lokatzak edota elurrak zorua irris-takor jartzeko duenean oreka mantentzen laguntzeko... Mendian azkarrago ibiltzeko gihago gehiago erabiltzeko aukera ematen dute, eta gainera, beso-etako zama hein batean arintzeko balio dezakete belauneko zigor gehiegi jasateko ekidinez.

Hau guztia lortzeko, nahikoa da bastoiak ahalik eta teknika hoberenarekin erabiltzen jakitea. Hala izan ezaz, mesedera-ko baino, enbarazu egiteko izango dira. Aralarko Adiskideak elkarteak bastoi pare bana emango die maiatzaren 16an izango den XIV Orduko Ibilaldian izena ematen dutenei. Behar bezala erabiltzeko argibideak ere eman ditu Bizkaiko Mendizale Federakundeko medikuntza aholkulari Kepa Lizarragak.

▶ **Bastoi motak.** Badira bastoi erregulagarriak: bi edo hiru zati teleskopiko dituztenak eta halako ezaugarriak ez dutenak. Lehenengoak abantaila nabarmen bat dute: haien beharrik ez denean —bloke guneetan edo lau hanketara igo beharreko guneetan, esaterako—, oso neurri txikietaraino bil daitezke, eta, hala, bizkar-zorroan eramateko modukoak dira. Gainera, norberaren neurrietara, erabilerak tekniketara eta erabiliko diren zorura egokitzen dira. Aldiz, neurritz alda ezin daitezkeen bastoiak, material berean, merkeagoak eta iraunkorragoak dira eta zati mugikorrek eta lotailuek sor ditzaketen arazorik ez dute.

▶ **Kirten motak.** Orain urte batzuk eskiko bastoiaren eredu hartzen zen kontuan, helduleku zuzenarena, eta egun mota askotakoak daude: bihurriak edota 'i' itxurakoak aurki daitezke; bakoitzak bere gus-tura egokitu dezake, beraz.

▶ **Zirindola eta mutur**



Bastoiak mesede egiten dute ondo erabiliz gero. HITZA

Bastoiak: askoren mirari

Ahalik eta teknika hoberenarekin erabili behar dira bastoiak; onura baino kaltea eragin dezakete bestela

motak. Beheko aldeari begiratuz gero zirindola (arandela) mota bat baino gehiago aurkituko dugu. Handienak elurretan ibiltzeko eginak daude, batez ere biguna dagoenean, sostengu azalera handituz eta hondoratzea ekidinez. Aldiz, beste zirindola batzuk txikiagoak dira, eta haien diseinu bereziari esker, egokiak dira elur sendoetan, bidexka-

tan, pistetan eta asfaltoan ere erabiltzeko; duten diametro txikiak ez luke zertan enbarazurik sortu aipatutako guneetan. Sobera ezagutzen ez den ezaugarri bat, batik bat errepidean edota haitz guneetan ibiltzen direnentzat, zera da: kalitatezko bastoi muturrak metalezkoak direla, tungstenozkoak adibidez, eta gune horietan irrista gutxiago egi-

ten dutela. Muturra txapeltxo batekin babestu behar da bizkar-zorroan eramateko, beste- la arriskutsu izan daiteke eta.

▶ **Moteltze sistemak.** Helburua zoru gogorrean egiten den talkak besoan eta sorbaldan izan dezakeen kaltea eragozteko da. Badira batzuk sinplegiak direnak: kirtena eta muturraren artean malguki bat dute jarrita. Malgukiak jasotzen duen presioa xurgatzen du baina ez dio jarraipenik ematen; are gehiago, zenbaitetan dar-dar eginarazten dio bastoiari tendintisa izateko arriskuak areagotuz. Moteltze sistemak erakartzen bazaituzte, ziurta zaitez haren egitura kalitate onekoa dela.

▶ **Bastoi bat edo bi?** Bastoi bakar baten erabilera egokiak abantailak eskainiko lizkiguke ziur, aurrera egiten nahiz bastoiaren aurkako aldeko hankak hartzen duen zama arintzen lagunduz. Hala ere, garbi dago beti alde berean erabiliz gero ibiltzerakoan eginiko ahallegina ez dela parekatua eta laguntzarik jasotzen ez duen aldea azkarrago nekatuko da horregatik. Desoreka hori arintzeko bastoia eskuz aldatzeko joera hartu behar da, baina gomendagarriena aldi berean bi bastoi erabiltzea da, betiere gure koordinazioak eta teknikak uzten badigu.

▶ **Erabilerak.** Hautaketa txar- rarak arazoak ekar ditzake, sorbaldan batik bat, baldin eta lu- zeegia bada; laburrak, berriz, eraginkortasun galera dakar. **Zelaian.** Ibilbide zelaian eta bastoia botaren parean jarrita, heldu-lekutik eutsiz ukondoko 90-110 gradu bitarteko angulua osatu behar du. Hala egi- nez gero besoko giharreek behar bezala lan egingo dute abiadura hartzean.

Igoera. Maldan gora, kontrako hankak zapaltzen duen gunea baino atzerago sartu behar da bastoia, zoruaren ezarritako in- darrak aurrera eginarazteko. Zoru hori gu baino baxuago dagoenez, bastoiaren luzera handitu behar da. Hori ez da gomendagarria gure teknika ona ez bada eta nahiz eta igotzen egon bastoia beti han- ken aurrean sartzen badugu. Halakoetan bastoiaren heldu- lekua goragi geratzen da eta hanketako pisua kentzen eta oreka mantentzen besterik ez digu lagunduko.

Jaitsiera. Altuera galduz ema-

Bastoiaren erabileraz


Bastoiaren erabilerak mendizaletasunean orohar, eta iraupen ibilaldietan zehazki, sortutako interesaren adierazle dira segidako kopuruak: Tolosako XIV Orduko Ibilaldiaren pareko batean bataz beste 82.500 urrats ematen direla kontuan hartuta, bastoiak ondo antzera erabiltzen dituen mendizaleak beste horrenbeste euskarri aplikatuko lituzke, eta haien bitartez mendi ibilaldia- ren 66 kilometroetan eta 2.700 metroko desnibetan, haren belaunei eta mokorre- ri 300dik 400 tona bitarteko zama kenduko lieke. ◀

ten dugun urrats bakoitzean gure artikulazioek norbere pisuak eta daramagun zamak berez duena baino askoz indar gehiagori eutsi behar diote. Horretarako, beharrezkoa da bastoiari igotzerakoan adina- ko luzera ematea, gure aurrean sartu behar baitugu. Gure teknikarekin bat badator go- zatu egingo dugu, baina hala ez bada eskumuturrak behar- tuko ditugu.

Mendi hegalak. Lurzoru horietan goikaldeko bastoia lar- burtu egingo dugu eta be- hekaldekoak luzatu, bi besoek maila berean lan egin dezaten. Gainera, ibilbideak zetak egi- ten badiitu nahikoa izango da bastoiak aldeztatzea.

▶ **Uhala.** Bada erabiltzen ez duenik edo zintziliek eramaten duenik, baina ondo erabillita kirtenari eutsi beharrik gabe eta besoaren indar guztiare- kin aurrera eginaraziko digu.

▶ **Bastoi nola eutsi.** Uhaletik zintziliek jarrita, osatzen duen zirkulua mantenduz eta bas- toia gure bestaldean dugula, eskua zirkulu horretatik sartu eta irekiz behera eraman uha- la eta kirtena aldi berean eutsi arte. Ondo egin badugu, uha- lak eskumuturraren goikal- dea, hatz lodia dagoenekoa, inguratuko du, alde bietatik jaitsiko da, eta esku azpitik igaroz goruntz egingo du kir- tenaren goikaldeko aingurale- kuraino; eskua irekita ere, be- soarekin behealdera indar eginez gero indar hori bastoi- ra joango da uhalaren bidez.



Tolosaldeko HITZAK ASTELEHENENKO PILOTA PARTIDUETARAKO (ASPEK antolatuta) zozketatutako sarreraren irabazleak :
KONTXI LARRANAGA (TOLOSA) • IOSUNE AGIRREZABALA (TOLOSA)
IZASKUN ARREGI (BELAUNTZA)

TOLOSA KUP ▶

Hirugarren jardunaldiko partidak gaur eta bihar

Bihar lau partida soilik izango dira; Uzturpe kiroldegian jokatuko dira guztiak

L. MONTES

Tolosa Kup futbito txapelketak aurrera darrai, eta gaur eta bihar hirugarren jardunaldiko partidak jokatuco dira. Bihar lau norgehiagoka izango dira soilik, 15:15ean hasita. Lehia guztiak Uzturpe kiroldegian jokatuco dira.

EMAITZAK ▶

Larunbata, 24.

Lokimotiv.	3 - 2 Itzuli 2
Juvenil*	0 - 3 S. harategia
Itzuli 1	5 - 0 Txiki taberna
Bonbero	7 - 1 Iñaki Falcon
Enara	3 - 1 Maradonas
Egunkaria	2 - 5 Izarpe
Lauetan Pix	4 - 0 Ordago
Ioniko	3 - 4 Amaro
Kupelzaleak	4 - 2 Iker Arrillaga
Bikutz	9 - 2 A ke no 10
Transp. Escolar	4 - 2 Eguzki
Amaro Buenos	8 - 2 Plaza Nueva

Igandea, 25.

Errekalde	4 - 4 Txanpa
Elorri	1 - 4 Astesuarra
Popesku	3 - 3 Magribi
Super Pang	15 - 0 The apalantx
Begi-gorri	2 - 5 K.k.jugamos
Ttiantogorri	0 - 6 Orbela
Ikatz	2 - 1 Mattin Gaizto
The Pabxis	2 - 2 Yogurines sport
Romero	3 - 0 Garikoitz*
Ekaitz	2 - 1 Kafe Iruña
Azkar	1 - 1 Lekukit

*Talde hauek ez ziren aurkeztu.

GAUR ▶

- ▶ 13:00: Ieltxu/Super Pang.
- ▶ 13:45: Neskak/Ttiantogorri.
- ▶ 14:30: Elorri/The apalantx.
- ▶ 15:15: Romero/Magribi.
- ▶ 16:00: Maskor/The Pabxis.
- ▶ 16:45: Ordago/Itzuli2.
- ▶ 17:30: Txanpa/Yogurines.
- ▶ 18:15: Santos h./Izarpe.
- ▶ 19:00: Maradonas/Amaro.
- ▶ 19:45: Iker Arrillaga/Txiki t.
- ▶ 20:30: Kupela/Popesku.
- ▶ 21:15: Ekaitz/Orbela.

BIHAR ▶

- ▶ 15:15: Lokimotiv/Bonbero.
- ▶ 16:00: Egunkaria/AmaroB.
- ▶ 16:45: Ioniko/R.de juerga.
- ▶ 17:30: Itzuli 1/Gorro Team.

IGERIKETA ▶

Chapala lakua (Mexiko) zeharkatu nahi du Carlos Peñak

Igarondo-Urpekoak taldeko igerilari tolosarrak lau egunetan egin nahi ditu Mexikoko laku luzeenaren 85 kilometroak

CARLOS PEÑA ▶ DISTANTZIA LUZEKO IGERILARIA

«Ahalegina eta lana, baliabide askorekin edo gutxiagorekin, bera da»

Erronka berriaren aurrean «ilusioz» mintzatu zaio HITZARI Carlos Peña igerilari tolosarra. Aurretik lan asko egin behar izan duela dio, eta kexu da «asko» kostatzen delako laguntzak jasotzea.

Zergatik Chapala lakua?

Latinoamerika asko gustatzen zait, eta hara joan naizen bakoitzean primeran tratatu naute. Inguruan gauza berriren bat saiatzeari bururatu zitzaidan, eta internetez-eta informazioa bilzen hasi nintzen. Eta horrela egin nuen topo Chapala lakua-rekin eta lakua babesteko sortu den erakundearekin. Haiekin harremanetan jarri nintzen, eta horrela hasi ginen proiektu hau antolatzen.

Elkarlanean aritu zarete, ordun?

AEBetako eta Kanadako hainbat lagunak osatzen dute Chapalaren Lagunak elkarteak. Lakua babestea da haien helburua; izan ere, lehortzen ari da, eta kutsatzeko gero eta arrisku handiagoa du. Nik betidanik egin dut ingurumenaren alde, eta batera aritzea erabaki genuen. Kirol erronka da; eta, era berean, aldarrikapena ere bai.

Hangoekin egoteko aukera izango duzu, beraz.

Beti gustatu izan zait indigenekin elkarbizitzea. Joaten naizen leku guztietan hango kultura eta jendea ezagutzen saiatzen naiz, gertutik, eta maila berean, errespetuz. Horregatik, behar bada, jasotzen dut gero haiengandik laguntza eta adiskidetasuna.

Hemen baino laguntza gehiago ematen al dizute han?

Hemen oso zaila da laguntzak lortzea. Ez daude asko, behar baino gutxiago, behintzat. Eta ahalegina eta lana, baliabide askorekin edo gutxiagorekin,



AITOR ELDUJAIN

bera da. Cressy babeslearen laguntza eskertu nahi dut, baita Iñaki Arratibel medikuarena ere. Hark eta bere talde guztiak bikain tratatu naute, prestatzen lagundu eta arreta berezia eskaini.

Non entrenatu zara?

Asteazken zehar Igarondo igerilekuan entrenatu naiz. Eta asteburuetan Lodosara (Nafarroa) joan izan naiz, ibaian igeri egitera. Oso ezberdina baita batean ala bestean aritzea. Nahia-gu izan da, natura gertu sentitzen dudalako.

Ez al da gogorragoa?

Bai, bai. Askotan itsasoa dirudite ibaiek eta lakuek. Haizeak gogor jotzen du, korronteak dituzte, olatuak... Sekula ikusi ditudan olaturik handienak Ness lakuan (Eskozia) bizi nintuen, pentsat!

Zein da gogorragoa: esfortzu fisikoa ala psikikoa?

Psikologiak paper garrantzitsua jokatzeko du. Laku batean, oso zabalak bada are gehiago, ez duzu erreferentziarik. Ez dakizu non zauden, zenbat gelditzen zaizun, iruditzen zaizu ez duzula aurrera egiten... Eta hori oso nekagarria da. ◀

LEIRE MONTES

Beste erronka bati ekingo dio laster Carlos Peña distantzia luzeko igerilari tolosarrak: Mexikoko Chapala lakua bizkarrez igerian zeharkatu nahi du Igarondo-Urpekoak taldekoak. Asteartean bertan irtengo da Euskal Herriatik, Mexikora bidetara.

Latinoameriketako lakurik esanguratsuenetakoa da Chapala. 1.553 metroko altueran dago kokatuta, Jalisco eta Michoacan estatuen artean. 85 kilometroko luzeera du, eta Mexikoko urtegi naturalik zabalena da. 68. da mundu mailako eskalan, eta Latinoamerikako hirugarrena, Maracaibo eta Titicaca lakuen ondoren. Azken bi hauek egin ditu dagoneko Peñak. Izan ere, lautan izan da Latinoamerikan. Mexikon, baina, lehendabiziko aldia du honakoa.

Dena ondo badoa, datorren larunbatean, hilaren 8an, ekingo dio probari igerilari tolosarrak. Lau egunetan zeharkatu nahi du Chapala lakua, eta egun bakoitzeko 25 kilometro inguru egin beharko dituela uste du. Beraz, lakua 85 kilometroko baino gehiago egingo ditu, korronteen, haizearen eta erreferentzia ezen erruz.

Mexikon eta, batez ere, Jalisco estatuan, Peñaren erronkak arreta handia piztu du, eta hainbat elkarte buru-belarri ari dira antolaketan laguntzen.

Jesus Mari Ramirez Irisarri masajista eta laguna izango du laguntzaile tolosarrak erronka berri honetan.

AZOKA ▶

Produktu eskaintza zabalak atzoko azokan

Azoka aurreratzeak jende eta salmenta kopurua gutxitzea ekarri zuen

PABLO ALBERDI

Gaur jai eguna izanik, atzo egin zen larunbateroko azoka herrian. Azoka aurreratzeak jende eta salmenta kopuruan eragin nabarmena izan zuen. Behera egin arren, dena den, salmenta kopurua ez zen hain kaskarra izan.

Produktu eskaintza izugarria izan zen. Gero eta barazki gehiago ikusten da postuetan. Aipatzekoa da zizen eskaintza: 300 kilo baino gehiago 6 eta 30 euroko tartean salduak. Berdura plazan apaingarriko landareen eskaintza zabalak izan zen. Pasa den asteburuan aurkeztutako nobedadeak ere baziren.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Ziza	6	30
Arkumea	3	3,2
Hurra	3	4
Inkaurra	3	4,5
Babarrun zuria	6	12
Tolosako babarr.	10	12

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,13	3
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,9	2
Tipula	1,74	2,01
Aza	2,53	4,05
Behi gazta	10,22	10,82

Berdura plaza		
Udaberrilorea	0,8	1,2
Surfinia	1,9	2,5
Izpilikua	4	6
Erromeroa	4	6
Perrexila	0,05	0,06

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

II. urteurrena

† Juana Peñagarikano Errondosoro
(Fermin Salaberria Mocoaroren alarguna)

2002ko maiatzaren 3an hil zen.

Bere seme-alabak: M. Jose eta Rikardo San Sebastian, Begoña eta Pako Gabarain, Pako eta Pili Agirrezabala, Irene eta Migel Otamendi; bilobak: Fermin, Jone, Begoña, Olatz, Iñaki, Iban, Asier eta Amaia.

Urtebetetze meza BIHAR, IGANDEA, MAIATZAK 2, 12:00ETAN, TOLOSAKO SAN FRANTZISKOKO eliz nagusian izango da. Aldez aurretik, eskerrik beroenak.

TOLOSAN, 2004ko maiatzaren 1ean

ASTEASU ▶ JAIK

Santa Kruz jaiak Simonen jaitsierarekin hasiko dira aurten

17:30ean izango da txupinazoa eta Simonen jaitsiera; haur jolasak, herri afaria eta erromeriak izango dira bi egunetan

GARAZI AZKUE

Elizmendi auzoko jaiak hasiko dira gaur bertan Asteasun, Santa Kruz ermitaren omenez antolatutako urtero bezala jaiak.

Aurten, ordea, bada berrikuntzarik festen antolaketa, lehenengo aldiz, Simon jaitsiko baita festei harrera egitera. 17:30ean, txupinazoa emanango die hasiera festei, eta ondoren Simonen jaitsiera, Simonalde txokoaren izena hartuta.

Haur jolasekin eta herri afariarekin jarraituko dute Santa Kruzak, eta gauean, erromeria izango da goizaldera arte, An-

EGITARAUA ▶

GAUR

17:30. Festen hasiera: Txupinazoa.

Simonen jaitsiera.

Ondoren. Haur jolasak.

21:00. Herri afaria Erretore ebxean.

23:00. Erromeria goizaldera arte.

sorregi eta Larrañaga trikitilarekin. Jaiek bihar jarraituko dute, ordea, egun guztian zehar Epelde eta Larrañaga trikitilariak egongo dira giroa alai-

BIHAR

11:15. Meza Santa Kruz ermitan.

Ondoren. Hamaiketakoa, Toka txapelketa eta trikitilariak.

18:00. Herri kirolak.

19:30. Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilariekin.

Bukaeran. Simonen igopera.

tzen eta ekintza ezberdinetan laguntzaile musikarekin. Eta berri ere Simonek emango die azken agurra festei, hurrengo urteko Santa Kruzak arte.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Aukeran dantza taldea izango da gaur Intxaurren

22:30ean hasiko da 'Izena duen guztia omen da...' dantza ikuskizuna pilotalekuan

G. AZKUE

Dantza garaikidean izen handia duen Aukeran taldeak ikuskizuna eskainiko du gaur Zizurkilgo Intxaurren pilotalekuan. 1997an sortu zen taldea Edu Muruamendiaren eskutik, oinarri tradizionala hartuta dantza garaikideraino ekarriz.

Akilimarro, Errenkan edota *Sutargi* ikuskizunak taularatu ostean, *Izena duen guztia omen da...* dantza emankizun berriarekin dator konpainia. Sineskera kristaua heldu aurretiko euskal kulturaren mitotetan oinarritutako ikuskizuna prestatu du, oraingoan, Aukeran dantza konpainiak. *Mari, Erensuagea, Lamiak, Gauekoak* edo *Basajaun* moduko pertsonaiak igoko dira taula gainera.

Oraingo honetan, dantza tradizionala oinarri hartu beharrean, dantza garaikidetik abiatu dira ikuskizuna prestatzeko, eta, dantza tradizionaltik eta argentinar tangotik hartutako pausoak moldatu eta tartekatutako Muruamendiaren *Izena duen guztia omen da...* taularatzeko.

Argitazpenak, efektu bereziak, jantziak eta eszenografiak giro berezia sortarazten dute taula gainean.

Eta dantzaz gain, musikak ere protagonismo berezia du ikuskizunean. Bost musikari igoko dira oholtzara zuzeneko doinuak eskaintzeko. Doinu herrikoiak nabarmenduko dira, Pascal Gaigneren eta Kepa Junkeraren piezekin.

22:30ean hasiko da Aukeran dantza konpainiaren ikuskizuna frontoian.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Jolasak eta bazkaria izango dira igandean Andatza Egunean

11:00etan hasiko da jai Andatza mendian; eguraldi txarra bada, pilotalekuan izango da

G. AZKUE

Bihar goizeko 11:00etan elkartuko dira zizurkildarrak eta usurbildarrak Andatza mendian tontorrean, Andatza Egunean parte hartzeko, betiko moduan.

Lehenik eta behin, hamaiketako izango dute mendira egiten duten guztiak; trikitilariak

eta bertsolariek alaituko dute festa.

12:00etan hasiko dira herri kirolak eta jokoak haur zein helduentzat. Eta ondoren, 14:00ak inguruan, bazkariak emango diote hasiera. Jatekoak zein edatekoak norberak eraman beharko ditu, eta antolatzaileek kafeak eta kopak banatuko dituzte bazkatzen gera-



lazko Andatza Eguna. TOLOSALDEKO HITZA

tzen diren mendizale guztientzat.

Festa Andatza bada ere, eguraldi txarra izanez gero, Zizurkilgo Intxaurren pilotalekuan

izango da festa. Ondoren, gerturatzeko diren usurbildarrek autobusa izango dute Zizurkilgo Usurbilera bueltatu ahal izateko.

ZIZURKIL ▶

Herri kirolen topaketa izango da gaur Andoainen

G. AZKUE

Herri kirol eta jolasen topaketako Gipuzkoako sailkapena gaur izango da Andoainen. Zizurkilgo taldeak hartuko du parte bertan. Jaialdian, bertsolariak eta musika izango dira, partaideek frogak egiten dituzten bitartean. Hamabi zizurkildarrak 17:00etatik aurrera egongo dira Andoaingo goiko plazan, trontza, dantza edota toka probekin.

<p>Bailarako eskaintzarik zabalena</p>		<p>ORIXE Bigarren Hezkuntzako Institutua</p>
<p>BATXILERGOA Teknologia Natura eta Osasun Zientziak Gizarte eta Giza Zientziak</p>		
<p>ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA Natura inguruneke kirol ekintzen gidaritza</p>		
<p>Aurrematrikula: Batxilergoa: Maiatzaren 3tik 7ra Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 9ra</p>	<p>943 65 13 87 E-mail: 012980aa@hezuntza.net www.orixe.net</p>	

<p>zuhaitzi Zurgindegia</p>	<p>Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria</p>	
	<p>JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ</p>	<p>Tel.: 943 67 36 11 • Faxe: 943 67 36 55 "Cuatro vientos" Industrialdea, 1 Txarama auzoa • 20491 Leaburu</p>

<p style="text-align: center;"> </p>
<p style="text-align: center;"> </p>
<p style="text-align: center;"> Larraitz auzoa z/g Tel. 943 65 35 72 20269 ABALTZISKETA </p>

INGURUMENA ▶

AHTaren kontrako protesta Bruselaraino eramán dute

Euskal Herri osoko ordezkarietan Tolosaldeko kideak ere izan ziren trenaren kontrako aldarrian



AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak Europako Parlamentuan. HITZA

BIANDITZ IRAOLA

AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak Bruselan izan dira aste honetan, «auzi honetan dagoen desinformazioa salatu, eta proiektua gelditzea exijitzeko». 50 laguneko ordezkarietan izan da Bruselan, Euskal Herriko alde guztietatik bildutako pertsonak, eta tartean eskualdeko hainbat kide ere izan dira bertan.

Ordezkarietan honek zuen helburu nagusia «Europar Batasuneko erakundeei AHTaren inguruan euskal gizarteak duen erabateko desadostasuna» agertzea zen. Era berean, gai honen inguruan Madriletik zein Eusko Jaurlaritzatik «desinformazio kanpaina bat» zuzendu dutela salatu dute, eta horri aurre egitea lortu nahi izan dutela. Izan ere, proiektuari hasiera emateko geroz eta gutxiago geratzen den honetan, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskal Y-ak gizaratearen sostengu oparoa zuela azaldu zuten, «baina bestelak iritzirik badela» erakutsi nahi izan dute.

Abiadura Handiko Trenak izango dituen eraginak azaldu

zizkieten ordezkarietako kideak Europako Parlamentuko: «Eragingo dituen kalte ekologikoez gain, sozialak ere handiak izango dira».

Euren ikuspuntua indartzeko, gainera, Bruselara joan bezpera arte sostengu bila aritu dira, eta talde asko izan dira sostengu hori eman dietenak. Besteak beste, Aduna eta Gazteluko udalek; Eguzkik, Geziak, Zornotza Bizirik-ek, EKAK, URKOAK, Asambllea Anti-TAV-ek eta Ekologistak Martxan taldeek sinatu dute. Sindikatu eta al-

derdi politikoko batzuk ere azaldu dute ekimenarekiko sostengua, besteak beste, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta HIRU sindikatuek, eta Batasuna, Ezker Batua, Zutik, Aralar eta ANV alderdi politikoez ere bat egin dute AHT Gelditu!-rekin.

Elkarretaratzea ere bai

Euren ikuspuntua Europako Parlamentuan agertzeaz gain, Schuman plazan elkarretaratze bat ere egin nahi izan zuten. Izan ere, enparantza horren inguruetan daude kokatuta Europako Batzordearen eta Europako Kontseiluaren bi eraikinak.

Bruselara joandako ordezkarietan esanetan proiektua geldiarazteko eskaera egin nahi izan zuten erakunde hauei, «Europar Batasuneko erakundeen artean hauek baitira giltza dutenak. Izan ere, Abiadura Handiko Treña azpiegitura handi baten zatitxo bat baino ez da, Europako instituzioek diseinatu eta finantziaturikoa. Horregatik eragiten dituzten kalte ekologiko eta sozialak berri izan behar dute lehen eskutik».

DESINFORMAZIOA

Madril eta Gasteizko gobernuen «desinformazioa» salatu zuten Europako Parlamentuan

SOSTENGUAK

Beste erakunde askoren artean, euren sostengua eman zieten Aduna eta Gazteluko udalek

GUTUN@K ▶



Langileak eta herria burujabe, borrokak merezi du

Maiatzaren Lehen honetan, behean sinatzen dugun sindikatuok, klase gisa zein herri gisa dagozkigun eskubideak errebendikatzen ditugu eta eskubideok lortzeko borrokara deitzen diogu Euskal langilerari.

Bere geroaren jabe de Euskal Herri justu eta solidarioa nahi dugu eta helburu horren inguruan indarrak bildu eta esparru soberanista eta aurrerakoa sortu behar dugu.

Langileok oso argi daukagu ez dugutela oparitu ez inposatuko marko politikoaren aldaketarik ez eta lan eta bizi baldintzen hobekuntzarik. Oso ondo dakigu aurpegia ematea, indarrak biltzea eta borroka antolatzeari eraso egin eta gure eskubideekiko begirunea eta onarpena lortzeko bide bakarra.

Horixe erakusten digute prekaritateari, kaleratzei, diskriminazioei eta gehiegikeriei egunero jo eta su aurre egiten dieten lagunak. Lan baldintzak eta soldatak hobetzeko eta kontrato egonkorak lortzeko gogor borrokatzen ari diren lagunak.

Aurka ditugu patronala —privatua eta publikoa— eta gobernuak. Batak zein besteek presio ekonomikoa, euren neurria egindako legeak eta euren zerbitzura duten botere guztia erabiltzen dute langileon aurka, eta, eraso hori, prekaritatearen eraginez ahulek diren sektoreak nozitzen dute: emakumeak, gazteak, etorkinak... Baina, gero eta langile gehiagoren konpromisoa dugu geure alde eta ziur gaude bide honetatik egunero borrokak garaipen garrantzitsuak ekarriko dizkigula.

Horregatik diogu borrokak merezi duela, eta Maiatzaren Lehen honetan parte hartzea, indarrak biltzea eta konpromisoak hartzea animatzen zaiztuztegu:

— Gure herriaren eskubideen alde.

— Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruaren alde.

— Lan baldintzak hobetzearen alde: soldatak, lanaldia, osasun eta segurtasuna, egonkortasuna.

— Diskriminazio mota guztien aurka.

— Zerbitzu publikoen pribatizazioaren eta azpikontratazioaren aurka.

— Eredutik justu eta solidarioaren alde.

Zatuz Maiatzaren Leheneko manifestaziora!!

Maiatzaren 1ean denok Bilbora!!

ELA-LAB SINDIKATUAK ▶

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegia-Altzo-Amezket-Abaltzisketa-Albiztur. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03 (asteazkenak)

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarra-Belauntza-Berrobi

Gaztelu-Leaburu. Osasun

etxea: 67 24 11

Ikaztegjeta. Medikua: 65 33 29

Lirura. Osasun zentroa: 69 07 20

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

46 11 11

▶ San Esteban, hitzordua

eskatzeko: 00 68 00

▶ Gernikako arbola, hitzordua

eskatzeko: 00 69 00

▶ Amaroako dispensarioa:

67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Ur kontsultoria: 902 30 22 22

▶ Lurrarendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88

▶ Ertzaintza: 943 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzuen

mankomunitatea: 69 39 30

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Taxis: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrir aldirakaria: 30 07 32

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK (Tolosa):

67 12 14

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa M. I., Kale Nagusia

7, (Tolosa). 943 67 06 48.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitateak. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33. tolosa@hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@hitza.info

Anoeta. 687 41 01 18.

anoeta@hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@hitza.info

BELAUNTZA ▶ UDALA

«Baldintzak ez dituelako bete» itxi dute taberna

Sustraiak taldekoen iritziz «pixkanaka herria hiltzen ari dira udal gobernukoak»

ERREDAKZIOA

Herriko taberna ixtea erabaki du Udalak. Asteazkenaz geroztik dago itxita taberna, egun horretan joan baitzen notarioa bertara. Tabernakoek egun horretan egin behar izan zuten inbentarioa udal ondasun guztien zerrenda eginez. Sustraiak taldekoek «Udal gobernua taberna ixteko inongo arrazoirik ez dutela eman» salatu dute, «argi-bideak eskatu arren. Atzoko [herenegun] udalbatzarrean ere galderak egin arren, ez zituen arrazoirik eman».

«Pixkanaka-pixkanaka herria hiltzen ari dira udal gobernukoak; Gaztetxea ixten saiatu ziren lehenengo, eta orain herriko taberna itxi dute». Era berean, «jendearen biltzeko guneak ixten, eta «jendeak non elkartu» ez duela, eta «kanpora» joaten

hasi beharko dutela erantsi dute Sustraiako ordezkariak.

Belauntzako alkate Eudurne Arbelegiren hitzetan, «tabernakoek kontratuko baldintza batzuk ez dituzte bete» eta horregatik hartu dute erabakia. «Gauza asko gertatu dira. Otsailean oporrak hartu zituzten tabernakoek, inongo abisurik eman gabe. Gauza horiek Udalarari abisatu behar zaizkio. Orduetgia ere ez zuten betetzen. 09:30ean ireki beharrean, 11:30ean zabaltzen zuten. Era berean, nire aurkako kartel iraingarri bat jarri zuten. Gazte batzuei debekatu egiten zieten sartzea, eta herriarren erdia baino gehiago ez zen taberna horretara sartzen».

Bestalde, «taberna berriz zabaltzeko asmoa» dutela baieztatu du Arbelegik. «Lehiaketara aterako dugu taberna», adierazi du.

OREXA ▶ SANTA KRUTZ JAIAK

Haurrentzat puzgarriak eta marrazki tailerra

Gauean musika emanaldiak izango dira; Lor, Mal de ojo, DJ Bull, Ainara eta Izaro...

ERREDAKZIOA

Atzotik jai giroa da nagusi Orexan. Gaur 16:00etatik aurrera, gaztelu puzgarriak izango dira haurren gozamenerako. Era berean, marrazkiak egiten jardungo dira haurrak, eta begiraleen laguntza ere izango dute. Arratsalde osoan

musika ipiniko dute antolatzaleek giroa alaitzeko.

Gauean ere ez da musikarrik faltako. Gauerdian Lor eta Mal de ojo taldeek kontzertua eskainiko dute. Ondoren, DJ Bull-ekin disko festa izango da, eta goizaldera baratzuri zopa banatuko da. Ainara eta Izaroren kalejira izango da.

OREXAROKO UDALA

EUSKAL PRESOKA

EUSKAL HERRIRA

ONDO PASA OREXAR GUZTIAK

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Guztiz berrizeko jaisa Larremendi kalean, 27.000.000 jta.

Salgai (Iruña), Duplex-eko salgai Iruñan, Etxezarreta kalean.

Alokatzeko (Tolosa), Garaia Araba Etorbidetan, Garaia irekia.

Alokatzeko (Iruña), Garaia Hibel Goi Ainguru Errepublikan.

Salgai (Tolosa), Garaia irekia Ainzariz auzoan. Oso merke.

943 65 17 13 / 677 460 916

XABI FERNANDEZ ▶ 49ER KLASEKO MUNDUKO BELA TXAPELDUNA

«Olinpiar Jokoetarako maila hobetu behar dugu, besteek ere hobetuko dutelako»

Atenasetik domina bat ekartzea du helburu ibartarrak; orain gutxi irabazi du bere bigarren Munduko Txapelketa



Iker Martinez de Lizardui, eta Xabi Fernandez (eskuinean), Atenaseko Munduko Txapelketan. HITZA

DANI GIBELALDE

Pozik da Fernandez, oso pozik, eta ez da gutxiagorako. Bere bigarren Munduko Txapelketa irabazi du Atenasen (Grezia), eta Espainiako Bela Federazioak Iker Martinez de Lizarduirekin batera hiri horretan jokatu diren Olinpiar Jokoetan egongo dela ziurtatu du. Europako Txapelketa jokatu dute uztailan. Frantziar, Europako Zirkuituko estropadan aritu dira egunotan; egun batzuetan ez dira atera. Izan ere, Olinpiar Jokoetarako prestatze lanetan du burua ibartarrak.

Zorionak. Federazioaren erabakiarekin lasaitu ederra hartuko zenuten.

Bai, noski. Olinpiar Jokoetan gu izango gara esanda, gustura gaude. Gu ez aukeratzea oso arraroa izango zen.

Injustizia handia izango zen.

Olinpiar Jokoetan egoteko puntuak dira balio dutenak. Munduko Txapelketan aurkariei atera genien abantaila handia izan zen. Federazioak Olinpiar Jokoetan egoteko jarritako baldintzetako bat Munduko Txapelketan lehen zortziren artean geratzea zen. Guk bakarrik bete dugu hori, eta beste bi ontzietan alde handia atera diegu.

Olinpiar Jokoetara joateko sistema egokia iruditzen al zaizu?

Uste dut ez dela onena. Maila handiko jendea kanpoan gera-

tu da. Herrialde askok punta-puntako ontzi bat baino gehiago dute, eta bakarrak du joateko aukera. Baina tira, beti izan da horrela.

Zein helbururekin irtengo zarete Olinpiar Jokoetan?

Ahal dugun ondoen egiten saiatuko gara, ahal bada, irabazi. Hala ere, Olinpiar Jokoetan erraza da kanporatua izatea, baina domina irabazten saiatuko gara.

Munduko Txapelketako eremua oso hurbil dago Atenasen jokatu den tokitik. Egokia al da zuentzat?

Ondo ezagutzen dugu eremua. Munduko Txapelketa jokatu zen tokitik 10 kilometrora dago. Itsaso nahiko barea izaten da, eta guk nahiago dugu haize gehiagoko eta itsaso zarragoko toki bat. Baina ez dago gaizki. Denontzat berdina da, eta moldatu egin beharko dugu. Tokia ez da arazo izango.

Zuek al zarete faboritoak?

Faboritoetako bat agian bai. Hiru urte dararamagu maila onean, eta jendeak presio pixka bat ere sartzen digu. Alde guztietatik asko hitz egiten du jendeak, baina gu lasai joango gara.

Eguraldiak zeresan handia izango al du?

Guretzat haizearen afera garrantzitsua da. Ziurrenik bero handiegi egingo du guretzat, 40 gradu. Nahiago dugu haize indartsua, baina hori ezin

dugu aukeratu. Hala bada ondo, eta bestela moldatu egin behar, ez dago besterik.

Ezustekoa izan al da Munduko Txapelketa irabaztea?

Ezustekoa baino, sorpresa txiki bat agian. Denbora luzea eman dugu lesioekin, baina Australiak egonaldiari ongi aurkitu ginen, eta Txapelketa hasi aurreko bi asteetan sentsazio onak izan genituen.

Erraz irabazi duzue, alde handiarekin.

Erraza ez zen izan. Laugarren eguna zaila izan zen, eta gehienak gaizki aritu ziren; abantaila handia hartu genuen, eta ondo aritu ginen. Haize gogorra izan genuen lehen bi egunetan, gero denetik. Erregularrak izan gara oso postu onak lortzen, eta hori oso garrantzitsua da.

Hasieratik izan zineten lider-tzan, sasoi onean zaudeten seinale.

Sasoi aldetik ondo gaude, ontzia ere ederki preparatuta dago, baina geratzen den denboran oso garrantzitsua da entrenatzea. Ordu asko sartu behar ditugu. Hobeto izan gara. Jendeak asko entrenatzen du, eta haien maila hobetu egingo da; horregatik, guk ere gurea hobetu behar dugu.

Hawaiekoak ala Atenasekoak. Zeinek ilusio handiagoa?

Hawaiekoak izan zen lehena, eta hark egin zidan agian ilusio handiagoa. Biek dute antzeko

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Gipuzkoan zabaldu den azken KZgunea, Bidanian

Bidegoiango KZgunea pasa den astean ireki zuten; herenegun hasi zituzten ikastaroak



Sei ordenagailu aurkitzen dira Bidegoiango KZgunean. O.ESKIXABEL

O.ESKIXABEL

Pasa den ostiralean, apirilaren 23ean, ireki zuten Bidegoiango KZgunea: Gipuzkoan ireki den azkena. Hala ere, «gela egokitzen eman ditugu egun batzuk eta herenegun hasi ginen ikastaroarekin», azaldu du Uxue Salbotek, KZguneako irakasleak.

Sei ordenagailu daude KZgunean herritarren zerbitzura eta hauen ardurapean edozein zalantza argitzeko prest dagoen tutore bat ere badute.

Ikastaroak herenegun hasi zituzten; Nagusiweb ikastaroan, ordenagailuari eta Interneti buruzko hastapen ikastaroan, alegia, ari dira hainbat herritar.

Maiatzean ikastaroak goizez izango dira; ekainean, berriaz, arratsaldean.

Ikastaroak ez dauden bitartean edozein herritarrek erabili dezakete ordenagailuak.

ALEGIALDEA ▶

Lehia handia izan zen HITZAko partidetan

Asteazkenean, apirilaren 28an, Bidanian jokatu zituzten Kadeteek HITZA txapelketako partidak. Lau partida jokatu ziren eta lehia handia izan zen denetan. Hurrenez hurren: Zabala (Hernani) 10-Zabala (Erniope) 18; Garaialde 13- Ropon 18; Telletxea 18- Otamendi 9 eta Villaro 18- Iburguren 7. Asteburuan ere HITZA txapelketako partida ugari jokatu dira eskualdeko pilotalekuetan.

IKASTAROAK ▶

INTERNET KZGUNEAN

Maiatzak 5-18. 09:00-11:00.

Maiatzak 24-ekainak 4. 11:00-13:00.

NAGUSIWEB

Maiatzak 12-18. 11:00-13:00.

Maiatzak 24-28. 09:00-11:00.

MINTEGIAK

Maiatzak 19-20. Messenger 09:00-11:00.

Maiatzak 19-20. Irudi digitalen edizioa. 11:00-13:00.

Maiatzak 21. Outlook. 9:00-11:00.

Maiatzak 21. Euskal nekazal mundua. 11:00-13:00.

BALIARRAIN ▶

Eskulan ikastaroa maiatzaren amaiera bitarte

Eskulan ikastaroa jarri zuten martxan orain bi aste; asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara bitartean dira eskolak. Maiatzaren 28a bitarte iraungo du ikastaroak eta teknika eta eskulan ugari egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek, batez ere, margolaritza landuko duten arren. Interesatuak, beraz, asteazkenean udaltxera gerturatu besterik ez dute.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA



Atari-Soro pilotalekuan izango dira txekor-jatea eta Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanak. MAIDER JAUREGI

160 lagun bilduko dira txekor-jatean

‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ antzezlanerako 400 sarrera saldu dira; gainontzekoak gaur arratsaldean jarriko dituzte salgai

OLAIA ESKIXABEL

Azken urteetan baliarraindarraren artean errotu den ohiturari eutsiz, txekor-jatea egingo dute gaur eguerdian; orain dela sei urte hasi ziren herri bazkari hori egiten eta dagoneko herritarren artean sus-traitu den ohitura da: «Egun berezia da eta data gerturatzeko doan heinean jendea galdezka hasten da».

Atzo 21:00etan txekorra erdibitu zuten herriko mutilek: «hiletigitik osorik ekartzen dugu eta erditik txikitzen dugu ondoren», zehaztu dute antolatzaileek. Aldi berean, beste lagun batzuk, parrilan brasa prestatu, toldoarekin dena itxi eta txekorra erretzeari ekin zioten. Gau guztian zehar, txandaka txekorra nola egiten den ikuskatu zuten lanean aritu ziren lau gazteek, «txekorra erre

ez dadin orduero buelta eman ez», azaldu dute. Burruntzin egiten dute txekorra. Lan gogorra eta nahiko zaila dela azaldu dute antolatzaileek: «Teknika behar da».

Atzoko lanaren emaitza gaur dastatu ahal izango dute Atari-Soro pilotalekuan izango den bazkarian: «Txekorraren haragia oso samurra geratzen da baina bere teknika dauka», diote antolatzaileek. Mahaira eramane baino lehenago, xerratu eta saltsa berezi bat botatzen diete zatiei. Ondoren, bero-bero mahaira eramango dituzte: «160 pertsona inguruk izango dute probatzeko aukera txartel kopuru hori saldu baita».

Txecorra entsaladarekin eskainiko dute, baina ez da izango bazkariko eskaintza bakarra; aurretik txorizo egosia eta ondoren, sagar tarta, kafea,

kopa... eskainiko dituzte. Bazkaria 14:00etan hasiko da; 17:00ak aldera hustu egin beharko dute pilotalekua ondoren izango den antzerki saiorako prestakuzunak direla eta.

Antzerkia bigarren aldiz

Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanak 18:30ean hasiko da; 17:00etan pilotalekua hustuko dugu antzerkirako dena prestatzeko; 500 pertsonentzako lekua aurrikusi dute antolatzaileek. 17:30ak inguruan berriro irekiko dute pilotalekura sarrera «jendea pixkanaka-pixkanaka esertzen joateko eta horrela antzerkia orduan has-teko».

400 sarrera inguru saldu daudela kalkulatzeko dute antolatzaileek. Saldu ez diren sarrerak salgai jarriko dira 17:00etatik 18:00etara..

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Txekor jatea egingo dute Atari Soro pilotalekuan 14:00etan.

IKUSKIZUNAK

Tolosa. *La pasion de Cristo* filma. Leidorren 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.
Zizurkil. Maiatza Saltsan egitarauaren barruan, *Izena duen guztia omen da...*, Aukeran dantza konpainia. 22:30ean Intxaur pilotalekuan. Sarrera: 5 euro.

JAIAK

Asteasu. Elizmendin: 17:30ean txupinazoa eta Simonen jaitisiera. Ondoren haur jolasak, 21:00etan herri afaria eta erromeria.

Orexa. 16:00etan haurren txokoa, marrazki tailerra eta puzgarriak jokaitza animazio taldearekin. 24:00etan kontzertua Lor eta mal de ojo; ondoren DJ Bull. Goizaldera baratzuri zopa... eta kalejira ainara eta izarorek.

KIROLAK

GAUR ▶

Futbola.

- ▶ Tolosa-Aloña Mendi (Goren maila; Berazubi, 16:30).
- ▶ Elgoibar B-Intxurre (Lurraldeakako lehen maila; Mintxeta, 12:15).
- ▶ Ordizia B-Tolosaldea (Lurraldeakako 1. maila; Altamira, 16:30).
- ▶ Intxurre-Kostkas (Jubenil 1. maila; Elorri, 16:30).
- ▶ Eibartarrak-Billabona (Jubenil 1. maila; Unbe, 15:00).
- ▶ Danena-Tolosa (Jubenil 2.igoera fasea; Elbarrena, 11:30).

Areto futbola.

- ▶ GSI Bilbo-Laskorain (1. nazionala A; La Casilla, 16:00).



Eklipsea hobeto ikusteko

ABALTZISKETA ▶ Datorren asteartean, maiatzak 4, ilargi eklipsea izango da. Abaltzisketako Kultur Etxeko teleskopioa erabiliz Larraitzeko Zamao astedenlekuan eklipsea ikusteko aukera izango dute 21:30etik 12:30era bertara joan nahi dutenek, eguraldiak laguntzen badu. HITZA

▶ Emparea Ferrol-Hegoalde (Ohorezko Maila; Ferrol, 19:15ean).

HITZA pilota txapelketa Alebinak.

- ▶ Gaztañaga-Iratorza / Senperena-Goitia.
- ▶ Urretabizkaia-Kasatorre / Iraola-Zubeldia.
- ▶ Azketa-Muñoz / Eizagirre-Manterola.
- ▶ Galarraga-Egiguren / Irazustabarrena-Zabala. (Alegia, 16:00)

Infantilak.

- ▶ Barandiaran-Oliveira / Esnaola-Esnaola.
- ▶ Gaztañaga-Aizpurua / Urteaga-Oregi.
- ▶ Aldalur-Otamendi / Elola-Dorronsoro. (Aduna; 10:00)

Etorkizunekoak.

- ▶ Erauskin-Aranzabe/Alvarez-San Sebastian.
- ▶ Olaexea-Errarte/Zabaleta-Zabala.
- ▶ Yubero-Apeztxea/Portu-Arruti. (Beotibar, 16:00)

Tolosa Kup.

- ▶ 13:00: Ieltxu/Super Pang.
- ▶ 13:45: Neskak/Ttamtogorri.
- ▶ 14:30: Elorri/The apalantx.
- ▶ 15:15: Romero/Magrebi.
- ▶ 16:00: Maskor/The Patxis.
- ▶ 16:45: Ordago/Itzuli2.
- ▶ 17:30: Txanpa/Yogurines.
- ▶ 18:15: Santos h./Izarpe.
- ▶ 19:00: Maradonas/Amaroz.
- ▶ 19:45: Iker Arrillaga/Txiki t.
- ▶ 20:30: Kupela/Popesku.
- ▶ 21:15: Ekaitz/Orbela.

BIHAR ▶

Futbola.

- ▶ Tolosa-Durango (Jubenil nazionala; Berazubi, 12:00).

HITZA pilota txapelketa Etorkizunekoak.

- ▶ Amondarain-Esnaola/Axpe-Otxotorena.
- ▶ Urmeneta-Aranalde/Aranzabe-Galarraga. (Beotibar, 10:00).

Tolosa Kup.

- ▶ 15:15: Lokimotiv/Bonbero.
- ▶ 16:00: Egunkaria/AmarozB.
- ▶ 16:45: Ioniko/R.de juerga.
- ▶ 17:30: Itzuli 1/Gorro Team.

POXPOLAN ▶ BEARTZANA JATETXEA

Bertako produktuak

HISTORIA

1971ean zabaldu zen Amezketa Beartzana jatetxea eta betidanik sukaldaritzaren tradizioa landu du. «Lehendabizi gurasoak —batez ere ama— aritu zen. Nik 15-16 urte daramatzat lanean», dio Jose Ignacio Arsuagak, Beartzanako gaur egungo sukaldari eta arduradunak. Duela bost urte jatetxea berriro egin zutela esan behar da. Taberna eta jangelaz aparte, etxe inguru osoan terraza handia du, zati batean babes jarrita gainera. Guztira 120 pertsonentzako lekua dauka. Ohiko bazkari eta afariez gain, ospakizun, bataio eta lehen jaunartze ugariak banketeak eskaintzen ditu.



ESKAINITZA

Sukaldaritzaren tradizioa eskaintzen du Beartzanak. Aipatzekoa da bere entsalada epela, haragia —herriko baserrietakoa—, arrainak —batez ere zapoa eta legatza—, etxean egindako mondejuak bere garaian —urritik azarora, San Martin arte—, babarrunak —bertakoak, enkarguz hartzen dira— eta etxean egindako reposteria —gazta tarta, flana, mamia...—

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Joxe Aranburu (Amezketan).
 Zorionak ebeko guztien partetik.

HITZA, zorion agurren
 Urtebetetzak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak...
 zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

AMEZKETA
 Tlf: 943650695

BEARTZANA JATETXEA